

Indice

02

2022ko urria

Pedagogia Pentsioetan

JARDUNBIDE EGOKIAK

DEMOGRAFIA

Prestazioak

Gizarte Aurreikuspeneko Sistemak

Kontingentziak

Bazkideak

Erakundeak

Txostenak eta azterlanak

Inbertsioak

Rankingak



**Euskal Autonomia
Erkidegoko
gizarte-aurreikuspen
osagarriaren
behatokia**



EKONOMIA ETA OGASUN
SAILA
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
Y HACIENDA



**TXOSTENA
BORONDATEZKO GIZARTE
AURREIKUSPENA EAE-N**

FINANTZA POLITIKAKO ZUZENDARITZA
EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

2021.
URTEA

Euskadiko Gizarte-Aurreikuspen Osagarriaren urteko txostena argitaratu da

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak 2021. urteari dagokion Euskal Autonomiaren Erkidegoko Gizarte-Aurreikuspen Osagarriaren urteko txostena argitaratu du. Bertan, sektorearen zifra nagusiak jasotzen dira: 29.082 milioi euroko ondare historikoa lortu du eta bazkideen kopurua 1.143.748 da; hala, batez besteko ondarea 25.427 eurokoa eta enpleguko BGAEetan 30.809 eurora iristen da. Egindako ekarpenek gora egin dute (842 milioi euro), eta ordaindutako prestazioek, berriz, behera (628 milioi euro).

Informazio gehiago

Emakumea Euskadiko Gizarte Aurreikuspen Osagarrian

Infografia honek (geuk egina) fokua jartzen du emakumeak Euskadiko gizarte-aurreikuspen osagarrian duen presentziari, haren bilakaerari eta gizonen kolektiboarekiko desberdintasun nagusiei. Ikus daitekeenez, emakume bazkideen kopuruak nabarmen egin du gora 2018 eta 2021 artean, eta gizonen kolektiboak, berriz, pixka bat behera egin du. Enplegu-planek azaltzen dute igoera hori, nahiz eta emakumeen erdiak baino gehiagoak banakako plana duen. Aurreikuspen-plana duten emakumeen % 10ak 35 urte baino gutxiago ditu, eta gehienak enplegu-plan bati lotuta daude. Emakumeen batez besteko erkarena qizonezkoena baino txikiagoa da.

Informazio gehiago

2022an pentsioen arloan onartutako erreformak eta Europako Batzordearekin dituen konpromisoak Espainiak

Artikulu honek laburbiltzen ditu Espainiak 2022an pentsioen arloan onartutako erreformak eta Europarekin dituen konpromisoak Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. Pentsioen erreformak aurrera egin du bi neurri onartuta (enplegu-planak bultzatzea eta autonomoen kotizazio-sistema berria), eta horiei beste bi funtsezko alderdi gehitu behar zaizkie (pentsioak kalkulatzeko epea luzatzea eta gehieneko kotizazio-oinarriak handitzea), udazken honetan bultzatuko direnak. Hala ere, Europako Kontuen Auzitegiak adierazi du Espainiak partzialki soilik heltzen diola pentsioen iraunkortasunari, eta sistemaren erreformak pentsioen gastua epe ertain eta luzera iago dezakeela.

Informazio gehiago: Europako Kontuen Auzitegia

Pentsioak kalkulatzeko epea luzatzea: zer eragin izango luke?




Espainiako Bankuak estimazio bat egin du pentsioak kalkulatzeko epea luzatzeak hasierako prestazioaren zenbatekoan izan lezakeen eraginaren inguruan. Emaitez erakusten dutenez, egungo 25 urteak 35 urtera luzatzeak erretiro-pentsio berrien zenbatekoaren murrizketa orokorra ekarriko luke. Hala ere, kotizazio-urte txarrenak baztertzeko aukerak beharrekada hori leunduko lukeela adierazi du, kotizazio-hutsuneak edo langabezia-aldiak dituzten langileei eta batez bestekoaren azpitik dauden pentsioei mesede eginez, prestazio berrien zenbatekoaren desberdintasuna murriztuz.

Informazio gehiago

Auto-atxikimendua: enplegu-planen estaldura handitzeko mekanismo gisa
Erresuma Batuan

Guk geuk egindako artikulua, Erresuma Batuko pentsio-planai automatikoki atxikitzeko mekanismoa aztertzen duena. 2012tik, Erresuma Batuak pentsio-planetan auto-atxikitzeko mekanismoa aplikatzen du, hau da, langileak automatikoki sartzen dira erretirorako aurrezki-planetan. Hamarkada baten ondoren, sistemaren arrakasta egiaztatzen da, estaldura zabala (enpleguaren % 77) eta uzte-tasa oso txikia (% 7) erregistratzen baitu. Gainera, nabarmentzekoa da National Employment Savings Trust (Nest) sortu izana, sistemaren ezarpena bultzatzeko funtsezkoa izan den kostu txikiko funts publikoa.

Informazio gehiago





Annual Survey of Investment Regulation of Pension Funds and Other Pension Providers – 2022 edition



IMF Engagement on Pension Issues in Surveillance and Program Work



Financial planning and financial education for old age in times of change

Pentsio-funtsetako inbertsioaren araudiari buruzko urteko inkesta argitaratu da

ELGAren Pentsio Funtsten eta Pentsio Hornitzaileen Bestelako Funtsten Inbertsioa Arautzeari buruzko Urteko Inkestak (2022) jasotzen ditu pentsio-funtsek egindako inbertsioek bete beharreko arau nagusiak. Aztertutako erregulazioa alderdi kuantitatiboetan zentratzen da: inbertsio-zorroaren gutxieneko eta gehieneko mugak, atzerriko inbertsioaren mugak, araudian izandako aldaketa nagusiak. Herrialde bakoitzean dauden pentsio-planen arabera zehazten da informazioa (enplegu-planak eta plan indibidualak, nahitaezkoak edo borondatezkoak, ekarpen definitua edo prestazio definitua).

[Informazio gehiago](#)

Nola bermatu pentsio-sistema publikoaren iraunkortasuna, egokitzapena eta eraginkortasuna

Nazioarteko Diru Funtzak (NDF), estatu kideak ikuskatzeko eta aholkatzeko lanean, pentsioen gastu publikoari buruzko txosten hau argitaratu du. Pentsio-sistemaren iraunkortasunari, egokitzapenari eta eraginkortasunari buruzko hiru alderdi "makro-kritiko" jorratzen ditu, eta hiru faktore horietako bakoitzerako ebaluaziorako jarraibideak eskaintzen ditu, horretarako, epe luzerako ikuspegiarekin lan egiteko beharra azpimarratuz. Bestalde, programen ikuskapenean pentsioen azterketa eraginkortasunez integratzeko mekanismoak aztertzen ditu.

[Informazio gehiago](#)

Langileei beharrezko finantza-gaitasunak ematea

ELGAK egindako txostena, langileen artean finantza-hezkuntzak duen garrantzia jartzen duena arreta, haien erresilientzia eta epe laburreko eta luzeko ongizate ekonomiko-finantzarioa bultzatzeko tresna gisa. Politiken eskuliburu honek finantza-hezkuntza lantokian diseinatzeari eta implementatzeari buruzko funtsezko gaiak biltzen ditu -zer eduki eskaini, zer mekanismorekin, nola bultzatu parte-hartzea, emaitzen ebaluazioa, etab.-, eta Enplegurako finantza-hezkuntzan esperientzia duten ELGAko herrialdeek ezarritako jardunbide egokiak, aurkitutako oztopoak eta ikasitako lezioak biltzen ditu.

[Informazio gehiago](#)

Finantza-hezkuntza, baita adinekoentzat eta erretiratuentzat ere

Biztanleriaren zahartzeak eta digitalizazioa bezalako joerek adinekoen artean finantza-hezkuntza sustatzearen garrantzia indartu dute, beren finantza pertsonalen plangintza eta kudeaketa hobetzeko, baita erretiroan ere. ELGAK egindako txostenak adinekoek zuzendutako finantza-hezkuntzako politika eta programen adibideak biltzen ditu, hala nola, kompetentzia digitalei buruzko prestakuntza, erretiroa planifikatzeko simulagailuak eta abar. Adinekoek laguntzea da helburua, covid-19ak areagotu duen (digitalizazioa) egoera aldakor honi aurre egiteko.

[Informazio gehiago](#)

Buletin gehiago

>> [Informazio gehiago](#)

[Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Behatokia](#)